

2025EKO APIRILAREN 10EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamarra

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hogeita bost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: LEIRE ARTOLA UGALDE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AINHOA ARRESE ARRATIBEL
- MARIOLA PASCUAL PAREDES
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- MICHEL VENTUREIRA IRIZAR
- OLATZ ARRESE IMAZ
- AITOR ALDASORO ITURBE

BEASAINGO EH BILDU

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- IKER URTEAGA REBOLLAR
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE

- WESLEY ARITZ CORSITTO AGIRRE

ETORRI GABEAK: HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran ere parte hartu dute Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak eta Lurdes Auzmendi interpretariak.

1.- AURREKO AKTAK. 2025-01-30eko eta 2025-02-27ko akten onespena.

Akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira, inolako zuzenketarik aurkeztu ez delako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- **KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA.** 2025EKBO0040

Ezagutera eman da Alkatearen proposamena, 2025-04-03ko Antolakuntza batzordean kontu emandakoa:

“GAIA.- Konpromisuzko kredituen eranskinaren aldaketa: Sentsibilizazio programa eta Lan teknikoak asertibitatea eta kontzientzia linguistikoa lantzeko.

AURREKARIAK

1.- Sentsibilizazio programa eta Lan teknikoak asertibitatea eta kontzientzia linguistikoa lantzeko kontratatzeko behar den kreditua ematea proposatzen da.

2.- 2025eko ekitaldiari dagokion kreditua erabilgarri dago baina ez da aurreikusi ondorengo ekitaldietarako behar dena, beraz, beharrezkoa da hurrengo ekitaldietarako behar diren kredituak hornitzea, konpromiso-kredituen eranskinean txertatuta.

Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA

Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:

0110.227.231.00.04 Sentsibilizazio programa: 2.026 urtea: 37.877,84

2.027 urtea: 37.877,84

2.028 urtea: 37.877,84

2.029 urtea: 31.568,90

0230.227.335.32.07 Lan teknikoak. Euskara sentsib.

2.026 urtea: 44.655,00

2.027 urtea: 38.935,00

2.028 urtea: 21.920,00”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

b.- KREDITU ALDAKETA. 2. KREDITU TRANSFERENTZIEN ESPEDIENTEA ETA DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETA. 2025TRFR0002

Ezagutzero eman da Alkatearen proposamena, 2025-04-03ko Antolakuntza batzordearen kontu emandakoa:

1.- 2. Kreditu transferentzien bidez 50.000,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:

GASTUEN GEHIKUNTZA

Kap.	Izena	Euro
4	Transferentzia arruntak	50.000,00
GASTUEN GEHIKUNTZA		50.000,00

GASTUEN BAJAK

Kap.	Izena	Euro
2	Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketa	50.000,00
FINANTZIAZIOA		50.000,00

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu ondorengo partidak handituz edota txertatuz: 0350.471.134.00.01 BASQUECCAM

3.- Aldaketa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da."

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0350.227.134.00.05	Azken milia	50.000,00	50.000,00	0.000,00
GUZTIRA ...		50.000,00	50.000,00	0.000,00

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

<i>Partida</i>	<i>Izena</i>	<i>Hasierako kreditua</i>	<i>Gutxipena</i>	<i>Amaierako kreditua</i>
0350.471.134.00.01	Dirulaguntza: BASQUECCAM	0,00	50.000,00	50.000,00
GUZTIRA ...		0,00	50.000,00	50.000,00

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko.

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- KREDITU ALDAKETA. 4. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2025CRAD0004

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, 2025-04-03ko Antolakuntza batzordearen kontu emandakoa:

“Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin beharra izanik eta hauek finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikorik ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 1.751.572,29euroko zenbatekoaz kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, kapituluka honela laburtzen dena:

GASTUAK - GEHIKUNTZAK

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
1	Personal gastuak	27.882,29
2	Gastu arrunt eta zerbitzuen erosketak	20.590,00
6	Inbertsio errealak	1.703.100,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.751.572,29

FINANTZAKETA - SARRERAK

<i>Kap.</i>	<i>Izena</i>	<i>Euro</i>
-------------	--------------	-------------

8	Finantza aktiboak	1.751.572,29
SARRERAK GUZTIRA		1.751.572,29

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
0110.120.920.00.01	Oinarrizko ordaink.: Zerb. orokorrak	169.306,78	21.785,00	191.091,78
0110.160.920.00.01	Gizarte segurantzaz: zerb. orokorrak	134.362,73	6.097,29	140.460,02
0390.227.311.01.01	Kaleko komunen garbiketa eta man	22.000,00	16.000,00	38.000,00
0110.227.231.00.04	Sentsibilizazio programa	29.328,00	330,00	29.658,00
0230.227.335.32.07	Lan teknikoak: euskara sentsib.	48.900,00	4.260,00	53.160,00
0350.622.333.20.01	Bonberia kultur gunea	20.000,00	710.000,00	730.000,00
0350.601.171.00.02.2024	Oria ibaiko ibilbidea	575.000,00	75.000,00	650.000,00
0350.622.337.20.02	Gaztelekua	0,00	228.100,00	228.100,00
0350.601.134.00.01	Herriko mugikort. Hobetzeko ekim	40.000,00	500.000,00	540.000,00
0350.622.342.30.02	Igartza futbol zelaiko tabernan hob	0,00	16.000,00	16.000,00
0390.609.153.30.04	Kaleko altzariak: banku, mahai,...	0,00	24.000,00	24.000,00
0350.620.171.00.01	Oria ibaiko biderako lursail erosk	0,00	50.000,00	50.000,00
0350.620.153.20.01	Andramendi biderako lursail erosk	0,00	100.000,00	100.000,00
		1.038.897,51	1.751.572,29	2.790.469,80

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

Sarreraren kontzeptuak/ Gastuen baja	Baliabidearen kontzeptua	Sarrera handiagoak
870.01	Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	1.751.572,29

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros cada vez que se presenta una propuesta como ésta, no solemos estar a favor porque resta opacidad y veracidad al presupuesto de gasto aprobado. Entendemos que son gastos necesarios, como por ejemplo, la limpieza y mantenimiento de los baños exteriores, pero también se prevén 75.000 € más para la ejecución de “Oriako bidea” y el coste total alcanzaría los 700.000 e.

En la legislatura pasada cuando propusimos mejorar la accesibilidad entre Mateo Mujika y Arantzazu con la instalación de un ascensor, se nos dijo que el coste era alto y si mal no recuerdo también rondaba los 700.000 €.

Creemos que es mejor acercar los barrios altos a toda la ciudadanía que la ejecución del proyecto de “Oriako bidea”. Por ello, nos vamos a abstener”.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Horrelako proposamenak beti kritikatu egiten dira. Gure legealdirako programan proiektu hori txertatuta dugu eta aurrekontuetan aurreikusita dagoen hobetzeko tresna da. Hasiera batean, sarrera eta gastuak orekatuak izan behar direnez, ezin ditugu gastu guztiak aurreikusi eta egiten duguna da partida ireki eta proiektuak agin ahala, partida doitu behar den zenbatekoarekin.

Oriako ibilbidea dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun departamentuarekin harremanetan gaude. Beasaingo proiektu bat izateaz gain, inguruko herriak bide berde batekin lotuko duen proiektua da. Olaberria eta Idiazabalekin egonak gaude eta hirurak ditugu proiektuak Mugikortasun departamentuari aurkeztu dizkiogu.

Herrien artean mugikortasuna areagotzeaz gain, lanera doazen goierritarrentzat aisialdirako ere balioko duen bide berde egokia izatea suposatuko du. Guk herri bezala nahi duguna da, Olaberria eta Idiazabalekin lotura eta paseorako bidea izatea, gure herritarren ongizaterako bide berdeak edukitzea beharrezkoa delako.”

Adur Ugartemendia Leunda: “Mateo Mujika eta Arantzazu kaleetako irisgarritasunerako zailtasuna ez zen egin beharreko inbertsioa baizik eta planteatzen zen igogailu inklinatuak ez ziola irtenbiderik ematen bertako biztanle zati handi bati. Abiapuntukoei eta bukaerakoei bai, baina tartekoei, ez. Teknikoki ez zen egokia. Eskuaratean genuen zifra milioi batekoa zen. Bueltak eman dizkiogu eta orain lantzen ari garen proiektua, betiko igogailu bertikala da, arrapala batekin. Uste dugu hori izango dela modua bi kale horien arteko irisgarritasuna konpontzeko.”

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV),

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- Dirulaguntzak emateko oinarriak:

- BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIKURUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK. 2025BOBE0004

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko 2025-04-03ko proposamena:

“AURREKARIAK

1. Lehenengo aldiz 2021eko abenduaren 31ko GAOⁿ argitaratu ziren 2022rako etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak ematea arautu zituzten oinarri erregulatzaileak.
2. Gazteria azpisaileko arduradun teknikoak 2024eko otsailaren 17an egindako txostena.
3. Udalak 2024.urtean 5 laguni eman zien dirulaguntza hau eta 15.000 euroko dirulaguntza eman zuen kontzeptu honetarako.

LEGERI APLIKAGARRIA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17. artikulua, 34.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra.
- Dirulaguntzak arautzen dituen udal-araua.
- 2023-2025erako Beasaingo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

PROPOSAMENA:

Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugikortasun urria duten pertsonen diru laguntza eman nahi die baldintza batzuek betetzen dituen etxebizitza alokatzeko, beraien baliabide ekonomikoak kontuan hartuta. Hori dela eta, Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: Beasaingo Udalak 18-35 urte bitarteko gazteei eta mugimendu urria duten pertsonen etxebizitza alokatzeko diru laguntza ematea.

Bigarrena: Dirulaguntzak hauek izango dira:

- Pertsona bakarren kasuan

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu gastuaren %	Gehieneko dirulaguntza
26.000 eta 28.000 euro bitartean	%20	100 euro
24.000 eta 25.999 euro bitartean	%30	150 euro
22.000 eta 23.999 euro bitartean	%40	200 euro

21.999 euro arte	%50	250 euro
------------------	-----	----------

- Bizikidetza-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu gastuaren %	Gehieneko dirulaguntza
33.000 eta 39.000 euro bitartean	%20	100 euro
30.000 eta 32.9000 euro bitartean	%30	150 euro
26.000 eta 29.900 euro bitartean	%40	200 euro
25.900 euro arte	%50	250 euro

Gehieneko dirulaguntza hilean 250 eurokoa eta 12 hilabetekoa izango da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Tal y como dijimos en la comisión quedamos a la espera de que el Gobierno Vasco, defina qué son familias monoparentales para que se puedan modificar las bases e incluir el compromiso que el equipo de gobierno tuvo con nuestro grupo municipal.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean esanda bezala begi onez ikusten ditugu oinarri hauek, bana iruditzen zaigu badaudela beste kolektibo batzuk, hala nola, 60 urtetik goragoko pertsonak, alargunak, banandutako familiak eta GLLetan sartzen ez direnak baina diru-sarrera mugatuak dituztenak, oinarri hauetako laguntzak jasotzeko gai izan daitezkeenak.

Orain etxebizitzaren azterketa eskuartean dugun honetan, urtetik urtera berdina onartzen diren dirulaguntza oinarri batzuek egokitu daitezke itxaroten argi garen definizio horretatik ondorioztatzen direnak eta aztertu daitezkeen beste behar batzuk.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Familia monoparental” definizio horren zain gaude. Espero da uztailerako Dekretua onartzea eta horren baitan aldaketak txertatuko dira. Kontuan hartu behar da etxebizitza gaia ez dela udalarena baizik eta Eusko Jaurlaritzarena. Eusko Jaurlaritzak baditu alokairua sustatzeko hainbat dirulaguntza lerro eta guk bide laguna egiten dugu. Horrekin ez du esan nahi gure dirulaguntza hauek horrela geratu behar direnik. Urtero azterketa bat egiten da eta datorren urtean kontzeptu hori definitu ondoren, behar diren aldaketak egingo ditugu.”

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 4 (Beasaingo EH Bildu)

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin Beasaingo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko ondorengo oinarriak onartu dira: (akta honen [1. Eranskina](#))

- GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO EKINTZA GIZATIAURRENTZAKO EDO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK. 2025LALE0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko 2025-04-03ko proposamena:

“AURREKARIAK

I. Badira jadanik legealdi batzuk non Beasaingo Udalak lankidetzaren egitarau ezberdinei bere aurrekontuko diru-sarrerara arruntetik %1a zuzentzen duela.

II.- % 1 horren banaketa hainbat modutara egin da, Udalbatzak data hauetan hartutako erabakien arabera:

- 2014-12-18

- 2017-11-30

- 2022-01-27

III.- Gaur indarrean dagoen 2024-04-25eko osoko bilkuraren erabakiaren arabera, honela banatzen da % 1 hori:

%70	%30
45% EUSKAL FONDOA	Ekintza gizatiarrentzako edo larrialdietarako laguntzak
25% GARABIDE ELKARTEA	

IV.- 2025-03-13. Gizarte Ongizate azpisaileko arduradunaren txostena, garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzei buruzkoa

V.- 0220.481.230.20.01 partidak 69.880 euroko kreditua du esleitura lankidetzaren jardueretarako.

LEGERIA APLIKAGARRIA

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udalerrien eskumen propioak, 17. Artikulua: Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

- Euskal Herriko 3/2024ko Legea, otsailaren 15ekoa, Garapen eta Elkartasunari buruzkoa.

- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege deketuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituan Udal Ordenantza (2018-06-14).

- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025

PROPOSAMENA

Herritarrak Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenengoa: 2025.urteko Garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako larrialdietarako edo ekintza gizatiarrentzako laguntzen oinarriak onartzea.

Bigarrena: Alkateari dagokion deialdia egitea oinarriak DDBNn eta GAOn argitaratuz."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Batzordean aipatu bezala onuradunak oso zehaztuta daude, hots: Gobernuz kanpoko erakundeak eta erakunde erlijiosoak. Batzordean azaldu zitzaigun azken kasu horretan beraien estatutuetan aurreikusi behar dela, garatze bidean dauden herrialdeei laguntza ematearekiko helburu soziala.

Guk izaera erlijiosoa izatea kendu egingo genuke eta mantenduko genuke gobernuz kanpoko erakundeei eta baldintza horiek betetzen dituztenei zuzenduta daudela dirulaguntzak. Bestela iruditzen zaigu oso zehaztuta geratzen dela eta bakarrik aukera dutela dirulaguntzak jasotzeko aipatutako bi horiek.

Aipatu izan dugu baita ere, nahiz eta jakin zailtasunak daudela, diruz laguntzen den proiektua herriratzea diru publikoa den heinean. Herriko elkarteetara edo ikastetxeetara zabaldu beharko litzateke dirua zein proiektu garatzeko erabili den. Herriak ezagutu egin beharko luke."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Bat edo bestea izan, garrantzia duena da lankidetzara edo kooperaziora bideratzea eta estatuetan hori jartzea. Nortasun juridikoa duen edonork parte har dezake. Erlijiosoa jartzea gehigarria da. Inportantea dena da lankidetzarako izatea.

Herriko elkarteekin, bai. Lehen bazegoen. Esandako azken zati horren portzentajea herriko elkarteentzako ematen zen, baina azken urteotan ez da horrelako eskaerarik egon. Eskaerarik egongo balitz bide emango litzaioke. Ikusten badugu datorren urteetan banaketa hori birbanatu egin behar dela eta herriko elkarteentzako behar dela, zati bat utzi egingo litzateke, baina kopuru bat aurreikusi eta inor ez balitz aurkeztuko dirulaguntza hori galdu egingo litzateke. Lehenesten dena da lankidetzarako diru guztia banatzea beharra dagoelako."

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): "Herriko elkartearena aipatzen dudanean da, herriko elkarte eta ikastetxeei diruz lagundu den proiektuaren berri ematea. Badakigu zaila dela baina beraiek guregana etorri ordez, agian gu joan beharko genuke beraiegana azaltzeko zein proiektu gauzatzen ari diren."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Hori argituta esan, herriko elkarte batek egiten duela ikastetxeetan aurkezpen horiek."

Bozketa eginda aho batez onartu dira, garatze bidean dauden herrialdeei zuzendutako ekintza gizatiarrentzako edo larrialdietarako laguntzak emateko ondorengo oinarriak: (akta honen [2. Eranskina](#))

b.- USURBE ANTZOKIKO PREZIO PUBLIKOAK. 2025LIKU0001

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordeko 2025-04-03ko proposamena:

"HERRITARRAK BATZORDEAREN PROPOSAMENA

Udalak, indarrean dagoen kontratua 2025eko uztailen egitaritzen denez, Usurbe Antzokiaren kudeaketa lizitatzea aurreikusi du, beraz, sarrerak eta espazioaren alokairua direla-eta kobratu beharreko prezioak zehaztu behar dira.

Hori dela eta, Herritar Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

ZINE PROIEKZIOAGATIK ETA UDALAK ANTOLATUTAKO EKITALDI EDO IKUSKIZUNETARAKO SARRERENGATIK EDO USURBE ANTZOKIA ALOKATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK.

Uztailaren 5eko, 11/1989, Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzailaren 47.2 artikulua dioenez, bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, Udalak prezio publikoak ezarri ahal izango ditu, emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua, gutxienez, estaltzeko aukerarik ematen ez dutenak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat.

Hori gertatzen da akordio honen bidez ezartzen diren prezio publikoen kasuan. Gizarte eta onura publikoko arrazoiak daude jardueren kostuak estaltzeko ordaindu beharko litzatekeena baino prezioa baxuagoa eskatzeko partehartzaileei eta aldea udal aurrekontuan kargura estaliko da.

ERREGULAZIOA ETA TARIFEN ZENBATEKOAK

1. Artikulua.- Xedea

Erabaki honen xedea da Usurbe Antzokiko zinema eta ikuskizun kultural zerbitzua erabiltzen dituztenek ordaindu beharko dituzten prezio publikoak ezartzea. Baita ere Usurbe Antzokiaren alokairuaren prezioa.

Prezio hauetatik kanpo geratzen da sarrerak on line erosteagatik plataformek kobratzen duten komisioa.

2. Artikulua.- Ordaintzera behartuak

Prezio publikoak ordaindu beharko dituzte:

- Usurbe Antzokian zinea ikustera joaten direnek edo Udalak antolatzen dituen ekitaldi edo ikuskizunetara joaten direnek, baldin eta pedagogikoak edo dibulgatzaileak ez badira; kasu horretan, sarrera doakoa izango baita.
- Usurbe Antzokia alokatzen dutenak

3. Artikulua.- Sortzapena

Prezio publikoak sarrera eskuratzen den unean eta Usurbe Antzokiaren alokairu eskatzen denean sortuko dira.

4. Artikulua.- Zenbatekoa

I eranskineko A, B, C, ataletan aurreikusten diren prezio publikoak, BEZtik salbuetsita egongo dira, 102/1992, Foru Dekretuaren (20. Bat. artikuluaaren baitan) arabera

I eranskineko D atalean aurreikusitako alokairu-prezio publikoei, BEZ aplikatzeari edo salbuetsita egoteari buruz lege ezarritakoa beteko da.

5. Artikulua.- Administrazioa eta Kobrantza

Prezio horien kobraketa kudeaketaz Usurbe Antzokia kudeatzen duen enpresa kontratista arduratuko da, baina biltzen den zenbatekoa Udarentzat izango da.

Amaierako xedapena

Udal akordio hau indarrean jarriko da Usurbe Antzokiaren, Erakusketa/Esperimentazio Aretoaren eta "Bonberie" eraikinaren kudeaketa zerbitzuaren kontratu berria esleitzen den unean.

G.A.O.ean argitaratutako iragarkia, era berean, udalaren webgunean argitaratuko da.

ERANSKINA I

A. ZINE SARRERAK

Helduak, ohiko sarrera,: 5,4 €

Helduak, ikuslearen eguna: 4,3 €

Zineforuma: 4,3 €

Helduak, sarrera bereziak (3D...): 6,5 €

Haurrak: 3.9 €

Haurrak bereziak (3D...): 4,60 €

Abonua: 20,4€ (6 sarrera, bereziak ez daude barne)

Helduentzako dokumentalak edo hitzaldiak

- Helburu pedagogikoa edo dibulgatzailea dutenak: 0€*
- Bestelakoak: 3,5€*

B. OHIKO IKUSKIZUNAK

Helduentzako antzerkia: 12€

Helduentzako antzerki bonoa-Antzerki garaia: 72€

Antzerki amateurra: 6€

Ikastetxeek antolatutako antzerkia: 3€

Helduentzako musika: 12€

Helduentzako dantza: 6€

Bertsoa saioak: 6€

Haurrentzako ikuskizunak: 4,5€

Helburu pedagogikoa edo dibulgatzailea duten ikuskizunak: 0€

Bestelakoak: 6€

C. IKUSKIZUN BEREZIAK

1. Katxetaren kostua 9.999€tik -19.999€tara denean:

Helduentzako antzerkia: 20€

Haurrentzako antzerkia: 10€

Helduentzako musika: 20€

Haurrentzako musika: 10€

Helduentzako dantza: 10€

Haurrentzako dantza: 6€

Bestelakoak: 20€

2. Katxeta 19.999€tik gora bada:

Helduentzako antzerkia: 25€

Helduentzako musika: 25€

Helduentzako dantza: 15€

Bestelakoak: 20€

D. INSTALAZIOEN ALOKAIRUA

- *Herriko talde edo elkarteentzat eta Udalarentzat (6 ordu arte): 300€*
- *Herriko talde edo elkarteentzat (12 ordu arte): 400€*
- *Bestelakoak: (6 ordu arte): 600€, (12 ordu arte): 800€*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gure kezka azaltzen dugu prezio publiko hauen aurrean, diru sarrera mugatuak dituztenentzat. Beste esparru batzuk bezala kultura herritar guztien esku egon beharko litzateke. Gogoratuko duzue beste udalbatza batean Azpeitia, Tolosa, Lezo eta hainbat udalerrietako eredu ezberdinak ekarri genituela, formula ezberdin ugari daudelako.

Hitz egin dugu baita ikuskizun berezietarako erabiltzen den irizpidea, cache-a, hain zuzen ere eta iruditzen zaigu horrek ez duela sarbidea errazten. Filosofia horrekin ez dugu bat egiten: Ordaindu dezakeenak, ordaindu dezala.

Zerbitzu publikoa den heinean, denon eskuragarri egon behar du. Gure ustetan merezi du aztertzea eta formula ezberdinak bilatzea, kultura eskuragarri egon dadin.”

Alkate andreak (EAJ): “Kultura denontzat eskuragarri egotea, ados. Komenigarria dela aztertzea, diozu. Aztertu da eta aztertu diren herriekiko parekatuta gaude. Horregatik ekarri dugu proposamen hau.”

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE)

Aurkako botoak: 4 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Etorri gabea: 1 (Beasaingo EH Bildu)

Beraz, proposamena gehiengo osoarekin onartu da.

4- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- AA SS. AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA KATALOGOARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA. 2024HIBO0203

Ezagutzera eman da Lurralde batzordeko 2025-04-03ko proposamena:

“Gaia: Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetako Katalogoaren bigarren aldaketa. Behin betiko onespena ematea

AURREKARIAK

I.- 2025-01-30. Osoko bilkurak ondorengo erabakia hartu zuen:

“Lehenik. Jarraian transkribatzen den “Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetako Katalogoaren aldaketari” hasierako onespena ematea.

Aldaketa honetan datza:

A.3.11 “L eta Q eraikinak” izendatutako eraikina indarrean dauden AA.SS.ko Katalogoan A.3 “EHAeko Monumentu/monumentu multzo bezala izendatzeko proposatutako ondasun higiezinak” zerrendatik kanpo uzten da, egungo egoeran mantenduz gainerakoa.

Hasieran onetsitako HAPOn jasoa dago jada, eraikin hori Katalogotik at uztea.

Bigarren. Epe horretan irizpena eskatzea Foru-Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen alorreko eskumena duten sailei.

Hirugarren. 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea GAOean dagokion iragarkia argitaratuz, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Laugarren. Testuaren hasierako bertsioa, Web orrian nahiz transparentzia atarian ere argitaratzea.

Bosgarren. Erabaki honen berri prozeduran interesa dutenei ematea.

Seigarren. Eskatutako txostenak aldekoak badira eta jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ez bada, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

II.- Erabakia 2025-01-31n jakinarazi zitzaion Construcciones Auxiliares de Ferrocarriles enpresari. S.A. (CAF), eta 2025-02-3an, txostena eskatu zitzaizen aipatutako administrazio sektoriale. Gainera, 2025-02-13an, GAOan argitaratu zen alegazioak aurkeztu ahal izateko 30 laneguneko epean.

III.- 2025-02-18. Iñigo Tobes Alberdik, CAFen ordezkari gisa, ondorengo alegazio-idazkia eta iradokizuna aurkeztu zuen:

Adierazten du aldaketaren dokumentuaren 2. planoan ez dela behar bezala grafiatu L eta Q eraikina, CAF eremuko eraikin katalogatuen bilbe bera duelako, aldaketaren helburua eraikin hori katalogaziotik kanpo uztea denean. Den-dena akatsa dirudiela adierazi du, eta plano hori zuzentzeko eskatu du.

Bestalde, adierazi du CAF enpresa iradokizunen idazki bat prestatzen ari dela, eta laster Beasaingo Udalean aurkeztuko duela, Udalarekin elkarlanean aritzeko eremuko gainerako eraikinen katalogazioarekin zerikusia duen guztian

IV.- 2025-02-21. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura departamentuaren txostena (loteslea ez dena), jasotzen duena. Ondorioa:

Honengatik guztiagatik, enpresaren ekoizpen beharrak eta CAFF eraikuntzen industria ondare balioen babesa uztartzeko orain artean dauden zailtasunak ikusirik, multzoko edozein elementu katalogotik atera aurretik, multzoaren ondare azterketa zehatzagoa eta sakonagoa egitea beharrezko litzatekeela uste dugu, Plan Berezi baten bidez bere kasua, egungo elementuen ondare ezaugarriak aintzat izanda eskuhartze bateragarriak finkatzeko.

V.- 2025-03-03. Eusko Jaurlaritzako Kultura departamentuaren txostena (loteslea ez dena), jasotzen duena. Ondorioa:

Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioen Katalogoaren bigarren aldaketaren hasierako onespeneren proposamenari dagokionez, jakinarazten da, emandako informazioa aztertu eta proposatutako deskatalogazioak dakartzan eraginak aztertu ondoren, proposatutako Q eta L eraikinen eraispenak euskal industria-ondarearen lekuko garrantzitsua den monumentu-multzo horren kultura-balioei eragiten diela. Hala ere, igorritako memorian behar bezala dokumentatuta ez badago ere, oraindik kontserbatzen den Q eta L eraikinen jatorrizko zatia egoera txarrean dagoela uste da, eta, beraz, zerbitzu tekniko horiek ondasunaren egoera justifikatzen duen azterlan sendo dokumentatu bat egitea gomendatzen dute. Horrela, elementua deskatalogatzen bada, dokumentazio zehatza eduki ahal izango da, haren memoria gorde ahal izateko.

VI.- 2025-01-31. Katalogoaren bigarren aldaketa idatzi duen arkitektoak honekin batera doan txostenak egin ditu aurkeztutako alegazioari eta aipatutako txostenei buruz.

Horren ondorioz, Lurralde batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenengoa. Iñigo Tobes Alberdik CAFen izenean aurkeztutako alegazioa ebaztea emandako txosten teknikoaren arabera eta horren ondorioz onartzea.

Bigarren. Sektore-administrazioen txostenei erantzunez, eta txosten teknikoaren jarraibideei jarraituz, honako hauek adieraztea:

- L eta Q eraikinean proposatzen den edozein jarduketari eska dakioken baldintza gisa ezartzea, elementuaren egungo egoera zehatz-mehatz dokumentatzeko betebeharra.
- Lankidetzeta-konpromiso bat lantzea Udalaren, CAFen eta kultura-ondarean eskumena duten Kultura Sailen artean, CAFen gainerako eraikinetan esku-hartzeak antolatzeke dokumentua formalizatzeko.

Hirugarren. Beasaingo Plangintzako Arau Subsidiarioetako Katalogoaren bigarren aldaketari, behin betiko onespena ematea, 2. zenbakia duen planoaz zuzenduz, alegazioan adierazten den moduan.

Laugarren. Erabakia nahiz Katalogoa aldatuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sartu dadin.

Bosgarren. Erabaki honen berri, alegazio-egileari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailei ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.

Alegazioaren erantzuna:

Azaldutakoa ikusita, alde honek 2. planoko akatsa egiaztatu du, alegazio-egileari arrazoia emanez, eta plano hori zuzentzea eta 2. planoaz egiteari eta egiaztatzeari egotz dakioken akatsagatik barkamena eskatzea besterik ez dago. Plano hori, zuzenduta, erantzun-txosten honen ondoren dago, Beasaingo Udalean dagoeneko aurkeztu dela adieraziz.

Foru-Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kultura-ondarearen alorreko txostenei erantzuna

Bi txostenak ikusita, lehenik eta behin adierazi behar dugu bat gatozela CAFen multzoa osatzen duten elementuen azterketa sakonagoa egitean.

Azterlan hori, Plan Bereziaren edo antzeko beste edozein tresnaren arabera, komenigarritzat jotzen da, baina ez egokitzen, une honetan, jarraian azalduko diren arrazoiengatik:

- Beasaingo Arau Subsidiarioen katalogoan hemezortzi urtetan (2007-2025) egindako bigarren aldaketa da, lehenengoa uholde-arriskuaren aurreko segurtasun-arrazoiengatik.
- Bigarren aldaketa hau L eta Q eraikinari buruz egiten da. Elementu horrek, 1917ko lehen trazaduratik, ezaugarri hauek galdu ditu, deskribapenean adierazten direnak:
 - Jatorrizko konposizioaren bost hormarteak.
 - Argiztapen-linterno jarraitua.
 - Fatxadako baoetako adreiluzko hariak.
 - Arkuteria nabarmena.
 - Harlangaitzezko itxitura.
 - Fatxadarik luzeeneko arku eskarfanoa.
- Udal arkitekto aholkulariaren txostenak dioten bezala, egungo L eta Q eraikinak ez du zerikusirik jatorrizkoarekin.
- HAPO berria eta haren katalogo-dokumentua idazteko prozesuan, CAFen multzoa osatzen duten elementuetako esku-hartzei buruzko irizpideak hartu dira, irizpide hauek zuzenean har daitezke, edo katalogatutako elementuetan esku-hartzeak aginduko dituen edozein dokumentu egiteko oinarri izan daitezke.

Ez gatoz bat GFaren txostenak bereziki atxikitzen dion deskatalogatu beharreko higiezinaren deskribapenaren baliozkotasunarekin.

Deskatalogatu beharreko eraikinak gaur egun ez du mantendu beharreko balio arkitektonikorik.

GFaren txostenean adierazten den bezala, eta segurtasun-arrazoiak izan ezik, kualifikazio-elementuaren katalogazioa deskatalogatzeko edo aldatzeko arrazoiak bere balioen arabekoak izan behar dira.

ONDORIOAK

1. Ez da eragozpenik ikusten katalogoaren bigarren aldaketa izapidetzen jarraitzeko eta, ondorioz, katalogoaren bigarren aldaketa behin betiko onartzeko.

2. L eta Q eraikinean proposatzen den edozein jarduketari eska dakioken baldintza gisa, elementuaren egungo egoera zehatz-mehatz dokumentatzea.

3. Udalak CAFekin eta kultura-ondarean eskumena duten kultura-sailekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartzea gomendatzea, CAFen gainerako eraikinetan egin beharreko esku-hartzeak antolatuko dituen dokumentua formalizatzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos de acuerdo porque se condiciona a documentar el estado actual de los elementos antes de ejecutar cualquier actuación, dando así cumplimiento a lo dispuesto por Diputación y Gobierno Vasco”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Batzordean komentatu zen zein den eraikin horien egoera. Noski, dokumentatu eta gauzak behar diren bezala egin, baina gaur egun eraikin horiek ez daude beraiek uste duten bezala.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- UDALAZ GAINDIKO ADMINISTRAZIOEK ESKU HARTZEN DUTEN OBRAK EGITEKO UDAL-EKARPENAK: ANTZIZAR KIROLDEGIAN HONDAR-BEROA APROBETXATZEKO OBREN 3. ZIURTAGIRI PARTZIALA. 2024HIBO0055

2025-04-3ko Lurraldeko proposamenaren arabera, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Gipuzkoako Foru Aldundiak helarazitako 111.822,61 €koa den hirugarren obra-ziurtagiritik onartzeko geratzen den 55.911,31 €ko (BEZa barne), kopurua onartzea eta ordaintzea.

c.- OBRA-ZIURTAGIRIAK: SAN INAZIO ETA ESTEBAN LASA KALEAK BERRURBANIZATZEKO OBREI BURUZKO, 5. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0014

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, “San Inazio eta Esteban Lasa kaleak ber urbanizatzeko proiektuko obrei buruzko” 5. obra-ziurtagiria, 451.492,07 €koa (BEZ barne).

5.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira ondorengo ebazpenak:

- 2025eko otsailaren 24tik apirilaren 6ra emandako Ebazpenak.
- 2025eko otsailaren 24tik apirilaren 6ra emandako Ebazpenak kontratu txikiei buruz.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

ESTEBAN LASA KALEKO OBRAK

Angel Redondo Fernández jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En la comisión de la semana pasada se nos informó que como consecuencia de la ejecución de las obras en la calle Esteban Lasa, se habían detectado unas grietas en los edificios y alguna otra en la carretera. La pregunta es cómo está la situación.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Esteban Lasa 13 eta 15eko etxebizitzetako behe solairuan azaldu dira pitzadura batzuk. Jakinarazi ziguten momentutik, bai obra-zuzendaritza eta baita ere Lurraldeko koordinatzaile teknikoa jarraipen zehatza egiten ari dira. Pitzadura puntuetan testigu batzuk jarri dira kontrolatzeko mugimenduak aurrera jarraitzen duten ala ez. Horrezaz gain gai hauetan adituak diren bi enpresekin harremanetan gaude eta lehenengo balorazio batzuk egin dira. Gure teknikariak, obra zuzendaritzak eta baita ere enpresa horiek esan digute ez dela kezkatzeko egoera eta guk hori helarazi diegu bertan bizi diren herritarrei. Hala ere ulertzekoa da beraien kezka. Hurrengo pausoak: parean dagoen paretaren begetazioa erretiratu, bertan egon daitezken pitzadurak hobeto ikusteko. Datorren astearen hasieran hori egingo da eta enpresa horien eskutik diagnostiko zehatza egingo da, gero dagokion esku hartzea burutzeko. Lasaitasuna trasladatu nahi dugu arrizkurik ez dagoelako. Hala ere, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu sortu diren kalteak konpontzeko eta bide batez aprobetxatuko da pareta horren egoera zehatza zein den jakiteko eta baita ere mendi-magalarena.

Hor aktuatzen ari gara Ur Partzuergoak esan zigulako San Inazio-Esteban Lasako obrak aprobetxatzea interesgarria izango zela, La Salle txikitik Esteban Lasako puntu horretaraino iristen diren euri-urak eta grisak jasotzea. Izan ere gaur egun Kale Nagusitik behera, Arana kaleraino iristen dira eta bonbeo bitartez bideratzen dira eta hori ez da hoberena. Orain grabitazioz jaitsi arazten dira.

Hasiera batean aurreikusi zen, lanak bi aste iraungo zutela. Hiru asteetara goaz. Atzo bizilagunekin elkartu ginen eta eragin gehiena izan duen zati hori ez dago bukatuta, urruntzen ari gara. Orain itxaroten ari gara hor emandako mugimenduak noiz eteten diren eta hortik aurrera, esanda bezala, diagnostikoaren arabera tokatzen diren neurriak hartuko ditugu.”

Angel Redondo Fernández jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “La zona de la cuesta se está utilizando para acopio para materiales. No sé si eso se va a utilizar para dar solución a la zona de arriba.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Beno, aste honetan “itzulia” ere tokatu da, baino printzipioz materialak kokatzeko gunea Arana Gaiztarroko gaikaldea izango da.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean azaldu zen eta orain ere aipatu duzu udalak hartuko duela ardura ondorioztatutako kalteekiko. Galdera da udalak bere gain ekonomikoki hartuko dituen izandako kalteak eta kontratistak arduraren bat izango duen.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Bai, udalak bere gain hartuko ditu, baina bizilagunei ere esan zaie beraien aseguruiei parte-emateko jakinaren gainen egon daitezten. Kontuan izan behar da zati publikoan dauden agente ezberdinak: Udala, obra-zuzendaritza, kontratista eta Ur Partzuergoa. Aurrerago ikusi beharko da, ardura nori dagokion eta zein portzentajeetan.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Pitzadurak beheko solairuan azaldu dira eta milimetro batekoak dira eta teknikoen esanetan ez dago inolako arriskurik. Ulertzen dugu bizilagunen kezka, baina jarraipena egiten ari gara. Erantzukizuna nork duen argituko da eta aseguruek tartean daudenez dagokionari tokatuko zaio esku-hartzea.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Kontraesana dago. Aseguruek izango dute bere ardura baina udalaren konpromisoa aipatu duzue ondorioztatzen diren kalteekiko. Ez genukeena nahi bizilagunek, beraien kezka gain, aseguruaren arteko borrokan sartu araztea. Argazkietan pitzadura horiek ez dute hain txikiak direnik ematen. Udalaren konpromiso tinkoa beharko litzateke horrela ez izateko.”

Alkatea andreak (EAJ-PNV): “Noski, gure esku dagoen guztia egingo dugu. Horretan ez izan inolako zalantzarik. Teknikoen esanetan lur-bustia da, mantekila modukoa eta egin diren aktuazioekin ikusi da, lehen esan bezala, pitzadurak beheko solairuan azaldu direla, milimetro batekoak direla eta momentuz ez dela arriskurik ikusten. Nik ere argazkiak ikusi ditut baina hor ez da bereizten pitzadurak zenbatekoak diren.”

Yolanda Hernandez Rodriguez andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bizilagunek esan digute pareta berri bat egin behar dela. Jakinda terrenoa nolakoa den, ezer egin baino lehen ezin da aztertu horren eragina zein izango litzatekeen?. Pitzadurak hasieran 13 zenbakian hasi ziren eta 15era pasatu dira. Bertan izan gara eta toki batzuetan testiguak ez daude jarrita.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Egin den kanalizazioa ez da beste munduko gauza. Berez, teknikarien esanetan, ez zuen zertan eraginik sortu behar pareta horretan. Errealitatea da, ordea, eragina izan duela. Pareta berri bat egin behar dela esatea, asko esatea da. Gure teknikarien ikuspegia baieztatzeko, enpresa espezializatua ekarri dugu, diagnostiko bat egingo duena. Enpresa honek ondorioztatzen duena aurrera eramango dugu. Ez dut uste eszenatokia, pareta berri bat egitea izango denik.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “A nosotros nos preocupa de cara al futuro ascensor que está previsto ejecutar.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Bai, kontutan hartzeko zerbaite da. Gogorazten digu esku-hartze bat egiteko gune delikatu dela. Ziur aski igogailu hori egin duguna baino sentsibleagoa izango litzateke.”

TALENTU FAKTORIA

Osoko Bilkurara bertaratutako pertsona: “Talentu faktoriaren inguruan galdera batzuk egitera gatoz. proiektua ezagutzen dugu: 3. Solairuan alokairuan egongo dira, 2.ean etxebizitzak eta beheko solairuan kafetegia.

Jakin nahiko nuke zein puntutaraino, beheko solairurako proposamenak egin daitezken ireki behar den parte-hartze prozesu horretan.

He escuchado de todo. Hay quien dice que está todo decidido y quienes opinan lo contrario. Parece que ahora hay dinero para materializar un proyecto en Olaran. La pregunta es si la planta baja se puede destinar a algo que no sea una cafetería o restaurante. Por ejemplo, San Agustín de Azpeitia, está gestionado por una cooperativa sin ánimo de lucro. ¿Podría ser esa parte una especie de centro cívico gestionado por una cooperativa que como en Azpeitia, estuviera asistida por una mesa cultural de la cual podrían formar parte, Asmube, Arrano Kultur Elkarte, Bear, ..?. Podría ser mesa de cultura, ongizate, etc.

Creo que en Beasain hacen falta lugares de encuentro para que puedan concurrir gente de distintas edades y donde se puedan hacer talleres, jugar a las cartas, enseñar juegos de mesa...

En Legazpia, está ahora la Asociación Jolasenea y junto con el Ayuntamiento están impulsando los juegos de mesa para evitar que los chavales estén tanto tiempo con las pantallas.

En definitiva, lo que queremos saber es cuál es la parte en la que de verdad se puede realizar alguna aportación. ¿Se admitiría que hubiera una plataforma en Beasain para llevar a cabo la gestión de la planta baja destinada a una mediateca, un centro cívico, un sitio donde pudiéramos quedar con amigos, con los chavales para ayudarlos en los deberes?. Hay margen para que se pueda crear una cooperativa o asociación sin ánimo de lucro, para que la planta baja no dependa del resultado de una licitación, y pueda ser cedida su gestión a alguna de esas entidades?.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Olaranen lanketan urte asko, hamarkadak, daramatzagu eta lanketa horren eta urrian egindako parte-hartze prozesuaren ondorioz, Olaran talentu faktoriaren hanka bat erakutsi zen. Udal gobernu bezala argi daukagu horretarako toki egokia dela. Olarane 3.000 m² inguru ditu eta aipatu zen bezala, beheko solairuaren eta goiko terrazaren definizioak falta dira, mila metro karratuaz ari gara. Aurreikusi bezala datozen maiatza-ekainean parte-hartze prozesua irekiko da. Eraikina bisitatzeko aukera ere izango da. Askotan, horrek ere bide ematen du ikusteko zer egin daiteken bertan. Urrian egindako aurkezpenetan, beheko solairurako jatetxe, taberna eta garbitokia egitea aipatu genuen talentu egoitzari eta auzoari zerbitzua emateko. Hortaz haratago espazioa dago, erabakitzeke zer egin. Kudeaketaren inguruan guk orain arte landu duguna, emakida bat egitea izan da, baina momentu honetan ezin dut erantzun lukrorik gabeko elkarte batek eraman dezakeen, lehenik ondo definitu behar delako eraikina zertarako nahi dugun. Horren arabera erabaki beharko da zein izango den kudeaketa egokia.

Erabat ados aipatu dituzun erabilerekin, hain zuen, ere, herritarrek elkartzeko puntua izatearena. Dena definituta ez dagoenez, parte-hartze prozesu horretan aukera izango da horretarako.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu), eskerrak eman dizkio Osoko Bilkurara bertaratutako eta hitz egin duen pertsonari eta esan dio oso ondo adierazi duela hainbat herritarrek duten sentsazioa. Jarraian ondorengoa adierazi du Alkateari zuzenduta: Esan duzu azken hamarkada honetan gai honen inguruan lanean zabiltzatela. Ziur aski zuek, bai. Azken urteotan lanean bai, baina azpilanean esango nuke. Horren adibide garbia da oposizioari proiektua azaldu diozuela publikoa egin baino hiru egun lehenago, inolako margenik gabe eta ahaztuz gu ere herritarren ordezkariak garela. Guri hitzik ere ez diguzue eskatu proiektu honekiko. EAJ lanean bai, baina ez udala. Esan duzu mila metro karratu inguru daudela erabilera zehazteko, baina bilera honen aurretik egin den Gobernu Batzordean onartu duzuenak badakizue zer den. Asmo orokor hori oso-oso itxita dago. Orain esatea beheko solairua eta goiko terraza geratzen dela definitzeko, ikusiko dugu!. Zure hitzak jasotzen ditugu. Ea parte-hartze prozesu hori benetakoa den eta bertan jasotzen diren beharrak islatzen diren, zeren eta guk proiektu honen inguruan gure zalantzak ditugu. Kudeaketaren inguruan azaldu zitzaigun zein den asmoa, ez behintzat lanpostu publikoak sortzearena!.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Saldutakoa izan da hotel-enpresa batek kudeatuko duela. Gauza batzuk ez ditu inork esan”.

Iker Urteaga Rebollar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Hotel-enpresa bat interesatuta dagoela zuek esan duzue.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Baina kanpokoa denik, ez. Erantzute aldera esan, azpisailean baino gu, lanean ari gara. Hainbat proiektu izan ditu Olaran-ek aurrera eraman ezin izan direnak. Orain ikusita talentuek (ez du esan nahi kanpotik etorritako teknikoak espezifikoak), duten garrantzia, gu eta gure ingurukoek dugun ongizate maila bermatu eta mantentzeko talentua era zabalean, Olaran eraikinaren edukia talentu-egoitza izango da, baina mila metro karratu pasatxo daude oraindik erabakitzeke daudenak. Helburua eta asmoa da proiektu-

lehiaketa egitea, parte-hartze prozesua aurrera eramatea eta honek ematen duena proiektu-irabazleari helaraztea egikaritze-proiektua egiteko aintzakotzat hartuz parte-prozesu horrek eman duena.

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Arkitektura proiektu-lehiaketa, nekez aurrera aterako dugu inolako programarik gabe. Lehiaketa horrek helburua egikaritze-proiektua egingo duen arkitektura-taldea hautatzea da. Parte-hartze prozesuak ematen duenarekin, behin betiko proiektua osatzeko oinarriak zehaztuko dira. Ez du esan nahi, itxia dagoenik.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Parte-hartze prozesu horren, iritzi bat entzuteko borondatea du edo herritarren iritzia loteslea izango da?. Oposizio handi bat egongo balitz, aldaketa ekarriko luke?.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Memoria pixka bat egin nahiko nuke. Gogorarazi nahiko nuke hauteskunde-programa batekin joan ginela eta programa horren ardatzetako bat Olan talentu-faktoria zela. Hutsetik ez gara abiatu. Horrek ez du esan nahi itxita dagoenik. Esaten duguna da behe solairuak eta estalkiak aukera ematen dutela guk hasieran genuen ikuspegia osatzeko. Ez da ez txuria ez beltza. Guk ardatz batzuk markatu behar ditugu eta marko horren barruan herritarren ekarpenak baloratuko ditugu ikusteko nola aberastu dezaketen ekimena.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Zuen hauteskunde-programan ardatz bat izateak ez du esan nahi jendeak zehazki ados egon behar duenik. Informazioa ateratzen den eta forma hartzen duen heienean, esan nahi dut. Gainera jendeak iritzi aldatzeko eskubide osoa du. Nahiz eta orain duela bi urte bozka eman, orain ikusten duten proiektuarekin ados egongo ez balira eta kontrakoa azalduko balute?.

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Kontuan hartu behar da herritarren iritzi eta proposamenak aintzakotzat hartu behar direla, baina askotan balantzan jarri eta oreka bat bilatu behar da. Parte-hartze prozesu hori aditua duen enpresa batek dinamizatuko ditu, gu ez garelako horretan adituak. Esanda bezala, guk gure ardatzak markatuta ditugu baina ardatz horietatik haratago erabakitze dagoen espazioa dugu. Espekulazioak utz ditzagun alde batera eta bide eman diezaiozun parte-hartze prozesuari herritarren ekarpenak egin ditzaten.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Adierazi duzue zuen programan aipatu zenutela talentu faktoriarena. Jendeak uler dezake talentu-kulturala bezala. Ez dut uste jende askok ulertu zuenik zuen talentu-faktoria, gaur egun planteatzen ari zaretena denik. Jendearen nahasmen hori ere somatu dut. Talentu hitza polita da baina, nahasgarria ere izan daiteke.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Beste gauza batzuen artean, guk ere esan dugu Olan-en kasuan lehenetsiko dela Goieritik kanpora lanera joan den talentua. Batzuetan ematen du fokoa kanpoko jendearengan jartzen dugula, baina ez da horrela. Badirudi 100.000 teknikari euskaldun daudela kanpoan lana egiten eta gure helburuetako bat izango da zatitxo bat hona erakartzea”

BIZIKIDETZA ORDENANTZA

Iker Urteaga Rebollar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gure kezka adierazi nahi genuen bizikidetza ordenantzaren inguruan, izan ere indarrean sartu denetik erabili da presoen aldeko bandelora kioskotik edo frontoiko ikurrak kentzeko. Bizikidetza ordenantzak puntu asko ditu eta justu horretan intziditu da eta adierazpen-askatasuna mugatzeko erabili da. Ez genuen uste bizikidetza ordenantzaren puntu nagusia hori zenik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Ez dugu partekatzen. Guk hemen kioskoan ikusten genuen bandelora hori lekuz kanpo geratu da bizikidetza ordenantzak araututakoaren arabera eta bete hainbat guneetan egin den bezala kendu egin da. Pilota txapelketarekiko esan, baimena dutela eta beraien egon garena. Momentu batean kendu egin zen, orduan baimenik ez zegoelako eta teknikarien duten mezua delako lekuz kanpo eta baimendurik gabeko edozein pankarta kentzeko. Batzuetan ez da erraza izaten egun batetik bestera herria pankartaz betetzen delako.”

Iker Urteaga Rebollar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Kioskokoak tradizio handi bat zuen eta justu hori lehenengoa izan da eta baimena ere ba zuen.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Neri galdetu ostean, ezezkoa esan didate.”

TAO

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Denok dakigu apirilaren 1ean indarrean sartzeko zela sistema berria, baina ikusita egun hauetan egon den nahasmena, gure balorazioa et kezka azaldu nahiko genuke. Sistema berria ezartzeko epe bat zegoen baina zerbitzua martxan jarri da etxeko lanak egin gabe: Parkimetroak egokitu gabe, pintaketa-lanak egin gabe eta eskaera-baimenak ebatzi gabe. Horrek guztiak, nahasmenaz gain herritarren haserrea sortu du eta horri gehitu behar zaio, Beasaindin “itzulia” pasatu dela. Herritarrok tira, baina kanpotik datorrena ez da enteratzen. Batzuk ordaindu egiten dute eta beste batzuk ez.

Argitasun falta ikaragarria ikusi dugu eta gaur egun oraindik jendeak ez daki martxan dagoen ala ez. Ebazpena jaso ez dutenek ez dakite aparkatu dezaketen. Sektore ezberdinetako pintaketak amaitu diren ez dakigu. Gure ustetan etxeko lan horiek sistema berria ezarri baino lehen eginak egon behar ziren, baina arrazoi bategatik edo besteagatik ez dira egin. Egungo egoera zein den jakin nahiko genuke. Jakinda eskaera guztiak ez direla ebatzi iGunean baliabide gehiago jartzea proposatzen dugu ahalik eta azkarren erantzuna emateko eta zerbitzu berria martxan jartzeko moduan dagoenean, bizilagunei ondo azaldu.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Lehenengo astean parkimetroak martxan zeuden, bai berriak eta baita ere moldatutakoak. APP-ren bitartez edo parkimetroan bertan ordainketa egiteko aukera egon da. Seinaleak jadanik amaituta daude. Orain geratzen dena da, azken egunetako eskaera-olatuari erantzuna ematea. Eskaera asko erantzun gabe egonik, badakigu TAOren inplantazioa ezin duela %100a izan. Aurreratu zaizue hori ematen denean gure asmoa ez dela lehenengo egunetik exekutatzeko, ez bada pedagogia pixka bat egin eta jendeak, herritarrek zein kanpokoak, garbi ez badu zerbitzua osotasunean martxan dagoela. Horretarako kotxeetan oharrak jarriko dira.

iGunea aipatu da, baina jakin udaltzainen ondoan azken hilabeteetan buru-belarri lanean daudela pertsona batzuk espresuki TAOren eskabideak artatu eta erantzuna emateaz arduratzen direnak.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En relación a la obligatoriedad del uso del garaje para guarda del vehículo, ha surgido el debate sobre qué ocurre en el caso de que al garaje se le dé otro uso. Es una de las grandes quejas de la ciudadanía y quisiera saber eso cómo está.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Ordenantzak esaten du ibilgailu baten jabe denak ezin izango duela egoiliar-txartela atera baldin eta garaje bat badu. Ordenantzak ez du zehazten zer gertatzen den garaje horretan motorra edo remolkea sartzeko erabiltzen bada eta ez, kotxea. Herritarrekin izan nuen bileran azaldu nuen, eta ebazpenak zentzu berean doaz garaje erabilera egiten bada (motorra edo remolkea sartuz), edota garajeen kotxea ez da kabitzen, ibilgailua kanpoan uzteko egoiliar-txartela baimenduko dela.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Hemos recibido quejas de los vecinos en el sentido de que en relación a las consultas formuladas están recibiendo respuestas ambiguas. Habría que aclararas.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Aurreko astean komunikazio bat bidali genien TAOko teknikariei kasuistika partikularraren irizpidea azalduz eta ebazpenak ere modu horretan doaz. Agian kasuren batean, ez da ondo komunikatu?. Baliteke.”

ESZENATOKIAK

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Nik aipatu nahiko nuke eszenatokien lizitazioan pasatutakoa. Kontratazioa begi onez ikusi, aho batez onartu eta oportunismo politikoa ikusi denean, sareetan erabilpena egiten da. Nire ustez, teknikariekiko errespetu falta itzela da. Kasu batzuetan teknikariek esaten dutena balio du eta kasu honetan gainera kontratazio mahaiak Udalbatza osoari egindako proposamena zegoen, denok ezagutzen zenutena eta aho batez onartu zena. Hala ere, aukera ikusi duzuenean medioetan atera duzue. Esan bezala, teknikoekiko errespetu falta itzela da.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Badakit zein argitalpenaz ari zaren. Hor adierazten dena da guk MONTAI enpresarekiko beti azaldu dugun kezka. Guk aurreko plenoan kontratazio-mahaiaren proposamena onartu bagenuen izan zen, teknikariek egindako balorazioa onetsi genuelako. Beraz, tontakeria bat esaten ari zara.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Transparentzia falta egozten duzu.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Transparentzia falta ez. Guk idatzi horretan egiten duguna da gure betiko kezka azaldu. Badakizu ordurarte gure bozka zein izan den. Ez dugu inolako oportunismorik egin. Hala ere pozten naiz gure azalpenak hainbeste jarraitzea eta hain sakon aztertzea.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Bai ikusten dugulako komeni zaizuenen zer egiten duzuen.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Esaten duzue gardentasun falta dagoela eta dituzue kontratazio mahaiko tekniko guztiak batzorde informatzaileetan behar diren galderak egiteko eta erantzuten zaizue.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk teknikari eta hemengo balorazioan ez dugu inolako kezkarik azaldu. Idatzi horretan azaltzen dena da enpresa horrekiko izan ditugun kezka eta zalantzak, publikoki ateratzen ari diren gauzei buruz eta hemen azaldu ditugunak.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Zalantzaren kasuan esan zaizue epaitegietara joateko eta ez zalantza zabaldu.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk ikusi dugu epaitegietara joaten garen eta gure alderdiak kasu horretan hartuko beharreko jokabidea. Diario.es komunikabideari deitu diozu esateko zalantza ezin dela zabaldu?.”

Iker Urteaga Rebollar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Diario.es komunikabideak esan digu informazioa eskatu dizuela eta ez zaiola ezer bidali. Komunikabide horretako kazetaria larritura geratu da Beasaingo udalean informazio-falta dagoelako. Agian gure hanka sartzea izan zen alde bozkatzea. Damutu egiten naiz!. Fede onez baietz bozkatu genuen eta gero gure egurtuak izan gara. Besterik gabe aldekoa botoa eman genuen et agian abstenitu egin behar ginen.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Besterik gabe, ez. Ardura politikoa duzue. Enpresa bat aurkezten bada eta teknikariek egindako balorazioa aldekoa bada, zein da arazoa?”

Iker Urteaga Rebollar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Enpresa zalantzarria dela eta zalantza hori komunikabideetan dago.”

Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV): “Baina udalean egin de prozesua garden eta objektiboa izan da.”

Aritz Corsitto Agirre jaunak (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE): “Nik beraien komunikazioa irakurri dut eta ulertzen dudana da enpresaren inguruan sortzen diren zalantzak. Nik ez dut ulertu teknikarien jarrera dudatan jartzen denik.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Pozten naiz horrela bada.”

Amaitutzat eman da izandako eztabaida.

1.ERANSKINA

“BEASAINGO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK.

ZIOEN AZALPENA

Beasaingo Udalaren helburua gazteek eta mugikortasun murriztua duten pertsonen etxebizitza alokatzeko aukera erraztea da, laguntzak emateko, besteak beste, alokairuaren kostua eta maizterren baliabide ekonomikoak kontuan hartuta.

1. XEDEA

Laguntza hauen xedea eskaera egiten duten errentarien ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren kostua ordaintzen laguntzea da, horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako dirulaguntzarik jasotzen ez badute (Bizigune, Gaztelagun, Etxebizitzetarako Prestazio Osagarria edo alokairu kontzeptuan Gizarte Larrialdietarako Laguntza).

Laguntza hauek 2023-2025 urteetarako onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan daude aurreikusita, zehazki 1. helburu estrategikoan: Gizarte-ekintza sustatzea eta 1.7. lerroan: 18-35 urte bitarteko gazteentzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat etxebizitza hutsen alokairua sustatzea.

Laguntza hauen helburua gazteen emantzipazio bidean laguntzea da, mugikortasun urriko pertsonen oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitzak izatea sustatu nahi da eta etxebizitza hutsen merkaturako sarbidea sustatu.

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin aurretik aipatutako helburua lortzen lagundu dela, izan ere, 2024. urtean sei pertsonen eskatu zuten dirulaguntza hau eta lauei eman zaie (beste laguntza batzuk jasotzen zituzten pertsonen ukatu zaie). Horietako bost 18 eta 35 urte bitarteko gazteak izan dira, eta bat desgaitasun-maila aitortua duena.

Kontzeptu honetarako aurreikusitako kreditua nahikoa izan zen.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 25.000,00 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0260.480.337.20.01 alokairurako dirulaguntzak.

Baimendutako gastuaren zenbatekoa (25.000,00 €) handitu ahal izango da aldaketaren zenbatekoa dela eta eskumena esleitura duen organoaren aldetik baina beti ere aurkeztutako eskabideak ebatzi aurretik. Horrek ez du beste deialdirik ekarriko.

3. ONURADUNAK

Behean azaltzen diren modalitateetan sartzen diren pertsona edo bizikidetzak unitateek eta 4. Artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituztenek eskatu ahalko dute dirulaguntza.

„A modalitatea”: 18 eta 35 urte bitarteko adina duten gazteak; adin hori izan behar dute eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean.

„B modalitatea”: Mugikortasun urriko pertsonak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Sailak egindako txostenean 7tik 15 puntura, „A, B edo C” letrak dituztenak, edo %25 edo handiagoa mugikortasun-baremoan.

Dirulaguntzaren eskatzailea Aldundiaren txosten teknikoaren zain badago, eskaera onartu egingo da, baldin eta txosten hori dirulaguntza emateko epea amaitu baino lehen aurkezten badute.

Bi modalitateak ez dira metagarriak, baztertzailerik baizik.

4. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzen eskatzaileek etxebizitza librean erroldatuta egon beharko dute, eta etxebizitza hori alokatzeko eskatzen da laguntza. Urtebetez egon beharko du erroldatuta aipatutako etxebizitzan, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

Eskabidea interesdunak egin dezake, edo bizikidetzak-unitateen kasuan, hura osatzen duen edozein pertsonak.

Bizikidetzak-unitatetzat hartzen da etxebizitza berean elkarrekin bizi diren bi pertsonak edo gehiagok osatzen dutena, elkarrekin ezkontzaz edo harreman iraunkorrez, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasunez edo familia-harrera iraunkorrez, adopzio aurreko familia-harreraz edo tutoretzaz lotuta daudenak.

Eskatzaileek alokairu kontratua izan behar dute.

Errentaren ordainketa banku-transferentzia edo kreditu entitatearen bidezko ordainketa aginduaren bidez egin behar da.

Eskatzaileek, bizikidetzak unitateko kideek barne, ezingo dute jabetzan etxebizitzarik izan. Horretarako, ez dira kontuan hartuko indibisoko titularren kasuak.

Hala ere, indibisoko etxebizitza baten titularrek eskatu ahal izango dute laguntza.

Bizikidetzak-unitatearen edo eskatzaileen diru-sarreraren muga oinarrien 9. apartatuan zehaztutako kopurua baino txikiagoa izatea.

Ez dira izapidetuko beste programa batzuetako laguntzak jaso dituztenen eskaerak: Bizigune, Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Gizarte Larrialdietarako Laguntza alokairu gisa.

Honako hauek ere ezin izango dira dirulaguntza hauen onuradun izan:

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo erakundeak.
- Beasaingo Udalarekin hartutako zorrak premiamendu bidez kobratzeko prozeduretan sartuta dauden partikularrak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo erakundeak, ezta Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean ez dituztenak ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatu edo bete arte, salbu eta zor horiek geroratuta, zatikatuta edo betearazpena etenda dagoenean.
- Zigor edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuak izan direnak (bizikidetza unitateko kideek barne), edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean daudenak, - 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena Legearen arabera sexu-bereizkeriagatik gertatutakoak barne.
- Eskatzaileek, bizikidetza unitateko kideek barne, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharretan eguneratuta ez daudenek.

5. ETXEBIZITZEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Laguntza jasotzeko:

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Beasaingo udalerrian egon beharko du eta izaera librekoa izan behar du.
2. Etxebizitzak, OHZn horrela kalifikatuta egoteaz gain, hurrengo gela eta zerbitzuak izango ditu.

“A” modalitatean:

- a) Sukaldea, elikatze-iturri elektriko edo gasezkoa duena, eta behar bezala hornitua.
- b) Dutxa edo bainu ontzia duen bainugela.
- c) Erabiltzeko egoeran dagoen 220 volteko instalazio elektrikoa, dagokion buletinarekin edo/eta gas hornidura.
- d) Iturriko ura izatea.
- e) Bizikidetza unitateko bi pertsonako (gehienez) logela bat izatea.

“B” modalitatea:

“A” modalitatean a), c), d) eta e) apartaduetan izendatutakoez gain

- a) Komun egokitua izatea.
- b) Arkitektura-oztoporik ez izatea.

6. BAZTERTZEAK

1. Babes publikoko etxebizitzak, hirugarren sektoreko erabileratik bizitegirako erabilera aldatzearen ondorioz tasatutako udal-etxebizitzak barne.
2. Bizigune programari atxikita dauden alokairuan dauden etxebizitzak.
3. 750 €-tik gorako errentamendu-kontratuak (ikus oinarri hauetako 9. artikulua).
4. Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.
5. Logelen alokairuak.
6. Berralokairuak.
7. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, garajeak, higiezin edota beste leku batzuk.

7. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntzak 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie.

Dirulaguntzaren ordainketa lau zatitan zatikatuta egingo da:

- Lehenengo ordainketa deialdiaren ebazpena egin ondoren izango da.
- Hurrengo ordainketei dagokienez, hiru hilabetetik behin egingo dira, aldi horiei dagokien alokairuaren ordainketa egiaztatzen den guztietan.

Inongo kasuan ez da onartuko alokairuaren ordainketaren agiria 2025-12-15 baino geroago aurkeztea.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, alkateak ebazpena emango du, eta hilabeteko epean jakinaraziko zaio eskatzaileari. Aldez aurretik, Udal Ogasunarekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatuko da.

Laguntza hauek behin bakarrik emango dira eskatzaile bakoitzeko. Onuradunak ezin izango dira onuradun izan ondorengo ekitaldi ekonomikoetan, jasotako laguntzaren modalitatea (A edo B) edozein dela ere.

8. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauen arabera emandako laguntzak ez dira bateragarriak izango helburu bererekoa emandako beste laguntza batzuekin.

“Emantzipa” dirulaguntzekin bateragarriak izango dira.

9. ESKATZAILEAREN DIRU-SARRERAK, ALOKAIRUAREN GEHIENEO GASTUAK, ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA KALKULUA

- Diru-sarrerei dagozkien gehieneko mugak hauek izango dira:
 - 28.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea pertsona bakar batez osatua baldin badago.
 - 39.000 euro gordin urtean, bizikidetza-unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago.

- Norberaren kontura lan egiten dutenei urtean 22.000 euro gordineko gutxieneko diru-sarrerak aitortuko zaizkie.

- Alokairu-gastuei dagokienez gehieneko kopurua: hilean 750 euro ezingo da inolaz ere gainditu.

Alokairuan ez dira sartuko hornidura-gastuak, ezta komunitate-gastuak ere. Horiek ez dira diruz lagunduko.

- Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko era:

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntzak kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

- Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

-Pertsona bakarraren kasuan:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 26.000 eta 28.000 euro bitartean

Alokairu gastuaren %20

Gehieneko diru laguntza: 100€

2. 24.000 eta 25.999 euro bitartean

Alokairu gastuaren %30

Gehieneko dirulaguntza: 150€

3. 22.000 eta 23.999 euro bitartean

Alokairu gastuaren %40

Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 21.999 euro arte

Alokairu gastuaren %50

Gehieneko dirulaguntza: 250€

-Bizikidetz-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute:

Diru sarrera gordinak eurotan

1. 33.000 eta 39.000 euro bitartean

Alokairu gastuaren %20

Gehieneko dirulaguntza: 100€

2. 30.000 eta 32.999 € bitartean

Alokairu gastuaren %30

Gehieneko dirulaguntza: 150€

3. 26.000 eta 29.999€ bitartean

Alokairu gastuaren %40

Gehieneko dirulaguntza: 200€

4. 25.999€ arte

Alokairu gastuaren %50

Gehieneko dirulaguntza: 250€

Edonola ere, eskabide bakoitzeko gehieneko dirulaguntza hilean 250 eurokoa izango da 2025eko ekitaldi ekonomikoan.

10. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Indarrean dagoen etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia.
3. Alokairu-kontratuari dagozkion hilekoen ordainagiriak.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken erregistroan errentamendu-kontratuen fidantza jarri izanaren egiaztagiria.

5. Estatu osoan etxebizitzarik ez izatearen ziurtagiria, Jabetza Erregistroak emana, laguntza eskatzen duten pertsonen buruzkoa, oinarri hauetako 4. artikuluan adierazitako salbuespenarekin.

6. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, azken ekitaldi ekonomikoari dagokiona.

7. PFEZaren aitorpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:

- Dagokion ekitaldian PFEZ aitorpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen ziurtagiria, Foru Ogasunak emana.

- Besteren konturako langileak badira:

10T ziurtagiria (PFZEren atxikipenen ziurtagiri ofiziala).

- Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

- Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbidek igorritako inskripzio-aldien txostena izeneko ziurtagiria.

8. Beste diru sarrera batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan diru laguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitorpena.

9. Oinarri hauen 5. artikuluan (argazkiak barne) eta 6. artikuluan (1. eta 2. puntuak) ezarritako baldintzak betetzeari buruzko adierazpena.

10. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Udalak udalerriko biztanleen errolda kontsultatuko du eskatzen diren eta bete behar diren datuak betetzen direla ziurtatzeko.

11.DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-korapiloaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatze eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko direnak.

4. Erakunde eskatzailea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

12. OINARRIAK ARGITARATZEKO ETA ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Eskabideak aurkezteko epea eta modua:

Noiz: Eskabideak oinarriak GAOn argitaratzen diren hurrengo egunetik 2025-09-30 arte.

Moduak:

- Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria eta aurkeztu beharreko agiriak iGunean aurrez aurre aurkeztuta, aurretiko txanda eskatuta. Eskaera orria Beasaingo Udalaren web orritik jaitsi eta inprima daiteke.
- Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuta.

13. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kontratuaren errentamendua urtea igaro baino lehen suntsiarazten bada, suntsiarazpen-egunera arte ordaindutakoa itzultzeko eskatuko da.

14. DATUEN BABESA

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

15. APLIKATUKO DEN ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.

16. HELEGITEAK

Udalak ahalmena du oinarri hauek interpretatu eta ebazteko, baldin ete horien inguruan desadostasunik sortzen bada.

Honako oinarri hauen aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan.

[Itzuli aurreko puntura](#)

2.ERANSKINA

“GARATZE BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEI ZUZENDUTAKO EKINTZA GIZATIAURREKARAKO EDO LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK. 2025. URTEA.

ZIOEN AZALPENA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17,1 artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du:

37) Garapenerako lankidetzak alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Horretan oinarrituta, Beasaingo udalaren helburua da garapen bidean dauden herrialdeetako edo desplazatu eta/edo errefuxiatuak bizi diren lurraldeetako biztanleei, hondamendi naturalen (lurrikarak, uholdeak, lehortekak, ekaitzak), giza jatorriko hondamendien (gerrak, gatazkak, borrokak) edo egiturazko krisien (haustura politiko, ekonomiko edo sozial larriak) biktimei berehala laguntzeko ekintzak sustatzea.

Helburua giza sufrimendua prebenitzea eta murriztea da, biktimak arrazagatik, erlijioagatik, sexuagatik, adinagatik, nazionalitateagatik edo kideatasun politikoagatik diskriminatu gabe.

Horretarako, dirulaguntzak emateko oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta:

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege deketuaren bidez onartua.

- Dirulaguntzak arautzen dituan Udal Ordenantza (2018/06/14GAO).

- Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2023-2025 (1. Helburu estrategikoa: gizarte-ekintza sustatzea. 1.4 Dirulaguntza ildoak: Gizarte-lankidetzak eta garapenerako laguntza).

Egiaztatu da aurreko ekitaldian egindako deialdiarekin lagundu egin dela:

- Aurrez aipatutako helburuak lortzen .
- Bizitzak babestu, giza sufrimendua prebenitu eta saihestera.
- Kaltetutako herritarren berehalako oinarrizko premiei erantzutera eta haien eskubideak sustatzera.

Horrela, 2024ean 65.000€ eman ziren 4 proiektutarako.

Horregatik, Udalak horrelako laguntzen deialdia egiten jarraitu nahi du.

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea larrialdi kasuetan daudenentzako edo ekintza gizatiarrak egiteko laguntza ematea da baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeraren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona eta erkidegoentzako badira. Ekintzak beharrean daudenek dituzten beharren arabera gauzatuko dira eta alde batera utziko dira irizpide politikoak, interes ekonomikoak edo arraza, etnia, nazionalitate, erlijio, sexu, adin edo pentsamolde politikoa dela eta egin litezkeen baztertze ezkor guztiak.

2.- AURREKONTUA

2025eko aurrekontuan, 0220.481.230.20.01 partida ("Lankidetza-jarduerak") esleitu da, 69.880 euroko kredituarekin, garapen-bidean dauden herrialdeei zuzendutako ekintza gizatiarrak edo larrialdikoak laguntzeko.

3.- ERAKUNDE ONURADUNAK.

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskatzeko aukera, nortasun juridikoa izan eta irabazi asmorik ez duten irabazi asmorik gabeko gobernuz kanpoko nortasun juridikodun edozein antolakuntzak edo erakundek izan dezake, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeek (GGKE) edo erlijio-kongregazioek deialdi honen xedearekin bat etorrita jarduerak egiten badituzte eta beren egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra (justifikatu egin beharko da) EAEan baldin badu. Ordezkaritza iraunkorraren kasuan, bere gain hartzen du eskaera aurkezteko erantzukizun zuzena, eta EAEan duen bulegoan proiektuaren kontabilitatea, dokumentazioa eta kudeaketa mantentzeko konpromisoa hartzen du edo ordezkaritza iraunkorra EAEan baldin badute.

Deialdi honetara biltzeko espresuki baztertuta gelditzen dira Estatuaren, Autonomi Administrazioen, Foru Aldundien eta banketxeen mendeko erakundeak nahiz zerbitzuak.

Aurkezten diren erakundeek ezingo dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo Udalarekin egunera ez badaude (zor ekonomikoak, beste deialdietan onartutako diru-laguntzen justifikazio falta...)

4.- ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak, telematikoki aurkeztu beharko dira Beasaingo Udalaren www.beasain.eus helbidean.

Erakunde eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Proiektu bakoitzeko, gehienez, 20.000€ko diru-laguntza emango da, eta proiektua 2025. urtean hasi eta amaitu beharko da.

Onartzen den diru laguntzatik (zeharkako gastuak kontutan izan gabe) gehienera, %10a bideratu ahal izango da erbesteratutako langileen gastuentzat (bidaiak, dietak, e.a. barne) eta zeharkako gastuentzat %7a.

Aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskaerari dagokion inprimaki ofiziala, erakunde sinatzailearen ordezkari izateko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatua (l eranskina).

b) Laguntzaren xede den ekintza gizatiarrari edo larrialdikoari buruzko txosten zehatza.

c) Dirulaguntza eskatzen den proiektu, jarduera edo programa espezifikoaren gastu eta diru-sarreraren aurrekontua.

d) Erakunde eskatzailearen estatutuak. Estatutuak, diru-laguntza lehenengo aldiz eskatzen duten erakundeek eta estatutuetan aldaketaren bat egin duten erakundeek bakarrik aurkeztu beharko dituzte.

e) Sinatzailea erakunde eskatzailearen ordezkari dela egiaztatzen duen agiria.

5.- DOKUMENTAZIO ELKARRERAGILEA ETA EGIAZTAGARRIA.

1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. Artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko; horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Beasaingo Udala Euskadi Nisae-ko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, eta datu elektronikoen trukea haien artean eta gainerako administrazioekin ezartzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Beasaingo Udalak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzeko eta lortzeko aukera ematen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan, plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko diren betekizunak honako hauek izango dira:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia: Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

b) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra: Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

4. Entitatea egiaztapen horren aurka badago, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

5. . Udalak egiaztatzen badu entitate eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe edo nahikoa ez dela, 10 egun balioduneko epea emango dio eskatzaileari ez-betetzea edo akatsa zuzentzeko; epe horretan zuzenketarik egin ez bada, eskabidea artxibatu egingo da, beste izapiderik gabe.

6.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eskabideak aurkezteko epea zenbatzen hasiko da 2025-08-31 arte.

8.- BESTE DIRULAGUNTZEKIN BATERAGARRIAK IZATEA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi behar zaio.

Lortutako laguntzaren zenbateko osoa inola ere ez da izango burutu behar den proiektuaren kostua baina handiagoa.

9.- PROPOSAMENAK EGIN ETA EBAZTEA.

Gizarte Ongizateko Azpisaila arduratuko da aurkeztutako dokumentazioa aztertzeaz. Horretarako, balorazio-batzorde bat sortuko da, honako eginkizun honekin:

Aurkeztutako eskabideak aztertzea, txosten teknikoa egitea eta alkatetzara eramango den proposamena egitea, egindako legitimitatea onartu edo ukatzeko ebazpena emateko.

- Emandako dirulaguntzen justifikazioa aztertzea, Alkatetzari zuzendutako txosten teknikoa egitea eta dirulaguntza itzultzeko proposamena egitea, halakorik balego.

Honako hauek izango dira Balorazio Batzordeko kideak

-Gizarte Ongizate Azpisaileko arduradun teknikoa.

-Gizarte Ongizateko Azpisaileko 2 teknikari.

10.- UDAL ZORRAREN KONPENTSAZIOA.

Laguntzaren onuradun entitatea Udal Ogasunetikiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

11.-ERAKUNDE ESKATZAILEARI JAKINARAZTEKO EPEA.

Alkatetzak hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio dirulaguntzaren eskatzaileari, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 2 hilabeteko epean.

12.- ORDAINTZEKO MODUA.

Dirulaguntzaren %100a, ebazpen-datatik zenbatutako ondorengo bi hilabeteen barruan ordainduko da.

13.- DIRULAGUNTZAREN EGIAZTATZEA.

Dirulaguntza zuzitzeko garaian kontuan hartu beharreko kopurua aurkeztutako proiektu osoarena izango da.

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a) Onartutako zuzeneko gastuen kopuruaren transferentzia egin izanaren frogagiria. Froga agiri horretan, transferentziaren kontzeptuan hain zuzen ere, proiektuaren izena edo eta erakunde onuraduna eta proiektua aurrera eramango den herrialdearen izena azalduko dira.

b) Burututako programari edo jarduerari buruzko memoria xehea.

c) Justifikazio-kontu sinplifikatua: jardueran izandako gastu eta inbertsioen zerrenda xehatua hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziz (II. eranskina) . Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsiaren arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

d) Diruz lagundutako programaren edo jardueraren fakturak.

Nazio Batuen Nazioarteko Erakundeek ez dute fondoen erabilera justifikatzeko fakturarik aurkeztu beharko (emandako dirulaguntzaren Faktura Bakarraren originalaren aurkezpena egin beharko dute) nazio Batuetako agentzien funtzionamenduari buruz erabakitako berariazko kontabilitate-kontrola nahiko justifikazioa dela ulertzen delako.

e) Erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina), dirulaguntza eskatu den jarduerarako lortutako beste laguntza ekonomiko batzuei buruzkoa.

14.- EGIAZTATZEKO EPEA.

Aurreko artikuluan eskatutako agiriak, 2026-02-28a baino lehen aurkeztu beharko dira.

15.- KOMPROMISOAK ETAQ BETEBEHARRAK

Laguntzaren erakunde onuradunak konpromiso eta betebeharrak hartuko ditu bere gain:

a) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.

b) Diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.

c) Kontuan hartzea berdintasun irizpideak

(1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.), bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

16. ARAU-HAUSTEAK

Datuak ezkutatzek edota oinarri hauetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta erakunde onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

17- DATU BABESA.

Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.

18.- APIKATUKO DEN ARAUDIA.

Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearena aplikatuko da.

19.- EBAZPENA ETA HELEGITEAK.

Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko.

Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.

Aipatutako epeak oinarri hauek GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.”

[Itzuli aurreko puntura](#)

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zazpiak eta hogeietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.